

### ONDORIOAK

Bizkaia garapen iraunkorrerako bidean dago. Ikertutako iraunkortasun adierazle gehienek, 16tik 11k, garapen joera positibo garbia izan dute mende honetako lehen hamarkadan, Garapen hori positiboa izan da arlo ekonomikoan eta baita ingurumen eta baliabideen erabileraren arloan eta garapenaren gizarte inklusibotasunaren arloan.

Zarataren adierazlean atzerakadak eta gizarte parte-hartzearen urritzea, hala nola azken urteotako geldialdi ekonomikoak, iraunkortasunaren ikuspuntutik erabat positiboa den panorama lausotzen dute.

Bizkaiko biztanlegoaren ehuneko handi bat pozik dago bere bizi-kalitatearekin eta hori osatzen duten alderdiekin.

Bizi-kalitatean eragina duten alderdien artean, familiarekiko harremanak gogobetetze handien eragiten duena da Bizkaiko biztanleen artean, dagoenarekin gozatzeko gaitasunaz eta inguruko pertsonetikiko harremanekin batera.

Bigarren, populazioa nabarmen pozik dago bere hezkuntza-mailarekin, osasun, etxebizitza eta garraio publikoekin.

Gogobetetze nahikodun mailan daude kultur eta kirol ekipamenduak, ingurumena, diru-sarrerak eta aisialdia.

Gizarte zerbitzuekin, instituzioen funtzionamenduarekin eta eurengan eragina duten erabakietan eragin ahal izateko ahalmenarekin ez daude horren ase.

Nagusiki iritzi positiboa du populazioak iraunkortasunarekin zuzenean lotutako alderdien garapenari buruz.

Azpiegituren arloan hobekuntza antzematen dela esan daiteke. Ingurumenaren babesaren inguruan hobekuntza nabarmena antzematen da, aipatutako zarataren arazoa salbu.

Azkenik, gizarte inklusioaren inguruko arloetan hobera egin den ustearen datua positiboa da. Baina langabeen babesak eta pobretasun-egoeran dauden pertsonen babesaren antzemateak behera egin du Bizkaiko populazioaren erdia baino gehiagorentzat.

Azken finean, ikerketa honek agerian uzten du, gorabeherekin bada ere, Bizkaian aurrera egin dela iraunkortasunaren arloan eta populazioa aurrerakada hori sumatzeko gai izan dela.